ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko abenduaren 4a, asteazkena • 140 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

42/2019 Mozioa, azaroaren 20koa, lurraldeko toki entitateei larrialdietarako laguntza emateko deialdiak erregulatzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 20an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

42/2019 Mozioa, azaroaren 20koa, lurraldeko toki entitateei larrialdietarako laguntza emateko deialdiak erregulatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek babestu egiten dute Arabako Foru Aldundia gardentasunaren, eraginkortasunaren eta irizpide-objektibotasunaren alde egiten ari den lana, lurraldeko toki entitateei larrialdietarako laguntza emateko deialdiak erregulatzeari dagokionez.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote larrialdietarako laguntzak arautzen eta izapidetzen jarrai dezan, irailaren 4ko Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2018 Foru Dekretuaren bidez, zeinak, aldi berean, honako beste arau hauek ere betetzen baititu: Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Araua; eta maiatzaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretua, zeinaren bidez onarpena eman baitzitzaien xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a

Presidentea
PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.12.04 06:28:52 Z